BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

5469

AGINDUA, 2013ko azaroaren 13koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2013-2014, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetarako hezkuntza-itun berriak sinatzeko eta 2013-2014 ikasturterako zenbat unitate itunduko diren zehazteko deialdia egiten duena.

Hezkuntza-itunen erregelamendua onartzen duen irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren bidez, itun berriak sinatzeko deialdia urtero argitaratuko dela ezartzen da.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko maiatzaren 29ko Aginduak 2013-2014, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetarako hezkuntza-itun berriak sinatzeko deialdia egiten du, eta 2013-2014 ikasturterako zenbat unitate itunduko diren zehaztu.

Behin aztertuta ikastetxeek aurkeztutako eskariak, eta behin eginda dagozkien proposamenak, honako hau,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– 2013-2014, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetarako itunpeko ikastetxeek duten plangintza onartzea, hezkuntza-maila bakoitzeko unitate kopurua zehaztuta (I. eranskina).

2. artikulua.– 2013-2014 ikasturterako itunpeko ikastetxeen zerrenda onartzea, hezkuntza-mailaka; agindu honen II. eranskinean zehaztu dira zenbatekoa, unitate-kopurua, hizkuntza-eredua eta itun-araubidea.

3. artikulua.– Agindu honen III. eranskinean azaltzen diren ikastetxeei hezkuntza- ituna ukatzea. Eranskinean bertan azaltzen dira erabaki hori hartzeko arrazoiak.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, interesdunek berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke EAEko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko azaroaren 13a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

Bizkaia

Herria	Ikastetxea	Maila	Izena	Taldeak 2013/14	2014/15	2015/16
Bilbao	CPES Escuela Superior de Hostelería Artxanda BHIP	Erdil-Mailako Heziketa-Zikloa	1. Egunekoa Sukaldaritza eta gastronomia	1	1	1
		Goi-Mailako Heziketa-Zikloa	1. Egunekoa Sukaldaritzaren zuzendaritza	1	1	1
		Goi-Mailako Heziketa-Zikloa	1. Egunekoa Jatetxe arloko zerbitzuen zuzendaritza	1	1	1

EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA
2013ko abenduaren 17a, asteartea
239. zk.

Bizkaia

Herria	Ikastetxea	Maila	Moduluaren Izena	Modulua	Talde	Eredua	Euroak
Bilbao	CPES Escuela Superior de Hostelería Artxanda BHIP	Erdil-Mailako Heziketa-Zikloa	1. Egunekoa Sukaldaritza eta gastronomia	Partziala	1	A	94.401,77
		Goi-Mailako Heziketa-Zikloa	1. Egunekoa Sukaldaritzaren zuzendaritza	Partziala	1	A	90.609,12
		Goi-Mailako Heziketa-Zikloa	1. Egunekoa Jatetxe arloko zerbitzuen zuzendaritza	Partziala	1	A	74.166,74

EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA
2013ko abenduaren 17a, asteartea
239. zk.

III. ERANSKINA

Ukatzeko arrazoiak: 1.– 2013ko maiatzaren 29ko Aginduaren 6.2 artikuluaren arabera ez ditu betetzen eskolatze-beharrak.
2.– Ez daude deialdi honen esparruaren barruan.

ARABA

Udalerria	Ikastetxearen izena	Maila	Ukatzeko arrazoia
Vitoria - Gasteiz	Nuevas Claves Learning Investigation Center (BClic)	Haur Hezkuntza	1

BIZKAIA

Udalerria	Ikastetxearen izena	Maila	Ukatzeko arrazoia
Barakaldo	CPES Beurko Check BHIP	Erdi Mailako Heziketa Zikloa	1
Bilbao	CPES Armengol BHIP	Erdi Mailako Heziketa Zikloa	1

GIPUZKOA

Udalerria	Ikastetxearen izena	Maila	Ukatzeko arrazoia
Donosita - San Sebastián	Fundación Uliazpi	Hezkuntza Berezia 2	2
Donosita - San Sebastián	CPES Centro Ramiro Mata BHIP	Erdi Mailako Heziketa Zikloa	1
Urnieta	CPES Cesa BHIP	Erdi Mailako Heziketa Zikloa Goi Mailako Heziketa Zikloa	1